

EUSKAL UNIBERTSITATE  
SISTEMAREN KALITATE  
AGENTZIA

AGENCIA DE  
CALIDAD DEL SISTEMA  
UNIVERSITARIO VASCO



ZERBITZUEN

KARTA

2017



## NOR GARA



Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia (Unibasq) zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da. Bere xedea Euskal Unibertsitate Sistemaren hobekuntza eta berrikuntza sustatzea da, nazioarteko kalitate estandarrak betez eta gizarteak Goi-mailako Hezkuntzari buruz duen interesa kontuan hartuz.

Horretarako, bai Euskal Unibertsitate Sistema bera osatzen duten erakundeak (Euskal

Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) bai bere tituluak eta irakaslegoa aholkatzen, ebaluatzen eta egiaztatzen ditu independetziatziaz eta objetibotasunez.

Unibasq-en jarduera Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko Kalitatearen Bermerako Irizpide eta Jarraibideak betetzen dituelako aintzatetsita dago, ENQA (European Association for Quality Assurance in Higher Education) elkartearen kide osoa izanik eta EQAR (European Quality Assurance Register for Higher Education) erregistroan egonik. Era honetan bere jarduerak nazioarteko mailan onartuta egonik.



## BALIOAK



- Independentzia bere eginkizunen konplimentuan.
- Erantzukizuna, profesionaltasuna eta pertsonen etika.
- Baliabideak optimizatzen duen kudeaketa berritzaile baten bitartez efikazia eta eraginkortasuna.
- Ebaluazio prozesuen garapenean objektibitatea eta zintzotasuna.
- Gizartearen aurrean kontu-ematea eta gardentasuna.
- Etengabeko hobekuntza eta bokazio zerbitzua.
- Autonomiari eta unibertsitateen berezitasunari errespetua.
- Amankomuneko interesak dituzten goi mailako erakundeekin, administrazioarekin eta nazio mailako zein nazioarteko beste agentzia eta erakundeekin lankidetzaren sustapena.

# ANTOLAKUNTZA EGITURA





## JARDUERA ESPARRUAK



Unibasq-en jarduera esparruak hiru dira: Zerbitzuak, Gizarte-proiektzioa eta Nazioartekotzea. Esparru bakoitzean jarritako helburuak eta bere betetze-maila neurtzen duten adierazleak Unibasq-en Plan Estrategikoan aurki daitezke.

### Zerbitzuak

#### Irakasle eta ikertzaileen ebaluazioa

- Irakasleak eta ikertzaileak egiaztatzea, Euskal Unibertsitate Sistemako lan-kontratupeko plazak eta unibertsitate pribatuko irakasle doktoreen plazak eskuratu ahal izateko.
- EHUko irakasleak eta ikertzaileak ebaluatzea, autonomia erkidegoko ordainsari-osagarriak lortzeko.
- EHUko kontratatutako irakasle eta ikertzaile egonkorak ebaluatzea ikerketa-osagarriak



lortzeko (seiurtekoak).

- Unibasq-ekin hitzarmena sinatuta duten erakundeen irakasleen jarduera ebaluatzea.

### **Titulazioen ebaluazioa**

- Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateek egiten dituzten gradu, master eta doktoregoko tituluen proposamenak ebaluatzea, Eusko Jaurlaritzak baimena eman aurretiko txostena egiteko eta Unibertsitate Kontseiluak egiaztatzeko.
- Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateek egiten dituzten gradu, master eta

doktoregoko tituluen ezartzearen segimendua.

- Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateek egiten dituzten gradu, master eta doktoregoko tituluen egiaztapena berritzea.
- Euskadiko zentroyen Goi-mailako hezkuntza artistikoen ebaluazioa.
- EHUko berezko tituluen kanpo ebaluazioa, hitzarmenaren bidez.
- Unibasq-ekin hitzarmena sinatuta duten erakundeen tituluak edo programak ebaluatzea.



### **Erakundeen ebaluazioa**

- DOCENTIA - Unibertsitateei laguntza ematen die, irakasleen jarduera ebaluatzeko prozedura propioak diseina ditzaten.
- AUDIT - Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate-zentroen kalitateari buruzko barneko berme-sistemak ebaluatu eta ziurtatzen ditu.
- Eusko Jaurlaritzaren Unibertsitate gaietan eskumena duen Sailak eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek sinatutako kontratu-programak ebaluatzea,

Unibertsitate Planean zehaztutako helburuak gauzatu ahal izateko.

- Unibasq-ekin hitzarmena sinatuta duten erakundeen kalitatea ebaluatzea.

### **Aholkularitza**

- Eusko Jaurlaritzari eta unibertsitateei erabakiak hartzeko prozesuetarako informazioa ematea.
- Gure unibertsitate sistemari buruzko ikerlan interesgarriak egitea Euskal ingurune sozioekonomikorako eta orokorrean gizarterako.





### Gizarte-proiektzioa

- Euskal ingurune sozioekonomikoko agenteekiko lankidetzaren areagotzea, erakundeen zein titulazioen inguruko Aholkularitza- eta ebaluazio prozesuetan parte har dezaten.
- Erakundeekiko, beste kalitate-agentzia batzuekiko eta gizarte agenteekiko harremanak lantzea gizartean Agentziak Euskal Unibertsitate Sistemaren hobekuntzan betetzen duen zeregina zabaltzeko.

### Nazioartekotzea

- Nazioarteko unibertsitate kalitatearekin loturiko izen handiko erakundetan, hau da ENQA, EQAR, INQAAHE (The International Network for Quality Assurance Agencies in Higher Education) eta ECA (European Consortium for Accreditation) erakundetan, parte-hartze aktiboa izatea, bai kudeaketa organoetan baita lantaldetan ere.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzea sustatzea beste agentzia edo unibertsitate batzuekin nazioarteko proiektuen edo lankidetzaren hitzarmenen bidez.
- Unibertsitate erakunde, titulazio edo irakasleen nazioarteko ebaluazioa eta aholkularitza.

## PARTE-HARTZEA



Unibasq-ek Iradokizun, kexa eta erreklama-zio gutunontzia dauka bere web orrialdean. Bestaldetik, Etika eta Eskubide Kodeak Etika eta Eskubide Batzordea sortzea ezarri du. Batzorde honen funtzionamendua dagokion erregelamenduaren bidez arautzen da.

Honez gain, Agentziaren kudeaketan eta erabakietan hainbat kolektiboren parte hartzea ahalbidetzen duten hurrengo organoak ditu: Ikasleen Aholku Batzordea, Euskara Batzordea eta Berdintasun Batzordea.

Bukatzeko, gure ebaluazio programetan eta jardueretan parte-hartzaile eta eskatzaileei gogobete-inkestak egiten zaizkie.





---

## IRAUNALDIA



Zerbitzu gutun honetan hartutako konpromisoek urtebeteko iraunaldia izango dute. Zerbitzu gutun hau luzatutzat emango da honen bertsio berria argitaratu edo ordezkatu arte.

---

EUSKAL UNIBERTSITATE  
SISTEMAREN KALITATE  
AGENTZIA  
AGENCIA DE  
CALIDAD DEL SISTEMA  
UNIVERSITARIO VASCO

**UNIBASQ**



## JENDAURREKO ORDUTEGIA

Neguko ordutegia:

Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 13:30 eta 15:30 – 16:30

Ostiraletan: 09:00 – 14:00

Udako ordutegia: 09:00 – 14:00

San Prudentio 8, 01005 Vitoria-Gasteiz

Telf: (+34) 945.12.33.56

Fax-a: (+34) 945.26.06.27

helbide elektronikoa: [info@unibasq.eus](mailto:info@unibasq.eus)

[www.unibasq.eus](http://www.unibasq.eus)